

Donostia, 2017ko martxoaren 24a

IDAZKARITZA NAGUSIARI

KONTROL MOZIOA MERKATU ERRESERBA DELA ETA

Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa hil honetako Batzordean bideratutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Udal kontratuetan gizarte, ingurumen, etika, lan, hizkuntz eta berdintasun irizpideak txertatzeko jarraibidean, atal bat dago irizpide horiek kontratua prestatzeko fasean sartzeari buruz. Hortxe jasotzen du jarraibideak enplegu zentro berezientzat eta gizarteratzeko enpresentzat merkatu erreserba egiteari buruzko atala.

Aipatutako zentro eta enpresa horientzat gordeko den urteko zenbatekoa edo ehuneko urtero finkatzen du Gobernu Batzarrak osotasunean eta sektoreka, aipatutako jarraibidean jasotakoaren arabera.

Lehengo otsailean, batzordean, Ogasuneko zinegotzi ordezkariak adierazi zuen asmoa zutela gutxieneko ehuneko bat finkatzeko gizarteratzeko enpresa eta enplegu zentro bereziekiko kontratuetarako. Hala ere, gaur egun ez da finkatzen, eta horrexegatik egin genion horri buruzko interpelazioa zinegotzi ordezkariari hil honetako Ogasuneko Batzordean. Erantzun ziguten udal gobernuak ez duela jarraibideen bidez gutxieneko ehunekoak finkatzeko aurreikuspenik, eta konparazioan, askoz hobeto kokatuta gaudela, alde horretatik, beste herri batzuk baino.

Beste udalerrri batzuetan, ordea, merkatu erreserben gutxieneko ehunekoak finkatzen ari dira beren jarraibideen bidez; esate baterako, Gasteizen, non % 3 jarri baitute kontratazio osoaren gaineko gutxieneko gisa.



Hortaz, eta betiere kontuan hartuta, gutxienerako batzuk ezartzeko orduan, aitzat hartu behar direla udalerrri bakoitzean jardun dezaketen enpresen ezaugarriak, eta irizten diogula aurreko agintalditik kontratazio arduratsuen inguruan bideratzen ari diren jarduerak sendotzeari begira, beharrezkoa dela jarraibidean gutxienerako ehuneko finkatzea, hau da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak gobernuari eskatzen dio finka dezala Donostiako Udalaren kontratuetan gizarte, ingurumen, etika, lan, hizkuntz eta berdintasun irizpideak txertatzeko jarraibidean, enplegu zentro berezientzat gordeko den kontratazioaren gutxienerako ehuneko.

Izpta.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia taldearen bozeramailea.